

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Aralarko Aingeruak Nafarroako Jauregia bisitatuko du asteazken honetan

Foru Gobernuako kideek irudia jendearentzat zabalik izango den ekitaldi ospetsu batekin hartuko dute

Lunes, 08 de abril de 2013

Aralarko Aingeruak Nafarroako Jauregia bisitatuko du asteazken honetan, apirilak 10, irudiak Pazko Eguneko hurrengo astean erakunde, ikastetxe, parrokia eta Iruñeko beste entitate batzuetan burutu ohi duen bisitaren barnean.

Ospakizun hori dela eta, Nafarroako Gobernuak San Migelgo irudia hartuko du ekitaldi ospetsu batekin, jendearentzat zabalik dagoena, eta goizeko 11:00ean hasiko da Foru Gobernuaren egoitzan.

Ordu horretan irudia Nafarroako Jauregiko ate nagusira iritsiko dela aurreikusten da, Aralarko santutegiko kapilau Mikel Garciandia Goñik ekarrita Nafarroako Ereserkiaren doinupean.

Harreraren ondoren, prozesio bat egingo da ekitaldi ospetsuen beraien laguntzarekin (arma-erregearekin, mazolariekin eta kandelak eramaten dituzten aguaziltxoekin) eraikinaren hainbat aretotatik Nafarroako Jauregiko kaperaraino; han San Nicolas elizako parroko Santiago Cañardo Ramírezek eukaristia egingo du.

Erlikia

Erljio-ospakizuna amaitzean, bertaratuek San Migelgo irudia eramaten duen "lignum crucis" erlikia beneratu ahalko dute eta prozesioari jarraitu Jauregiko ateraino; bertan azken ekitaldia egingo da, bertaratutako guztien eta Nafarroa guztiaren bedeinkapena.

Eukaristia Iruñeko Katedraleko Musika Kaperaren musikaren laguntza izango du, Aurelio Sagaseta kaperako maisua izango da zuzendari eta Julián Ayesa Goñi organo-jolea. Honako obra hauek interpretatuko dituzte: Urralgoitiko 'Kyrie' meza herrikoa; 'Sancte Michael' erresponstu-salmoa; Mozart-en 'Alleluia'; C. Casciolini-ren 'Panis angelicus'; 'Alme Pater' gregoriarra; eta G.Faure-ren 'Cantique, 4'. Irudiaren benerazioan zehar 'Mikel', 'Mikel guria' eta 'Agur Mikel Aingeru' koplak herrikoiak interpretatuko dira.